

***Ezkertiar eta abertzale proiektua  
Iparraldean***

***Inkestaren emaitzak***

*2012ko apirila*

***Itzuli 1.650 galdetegietako oinarrizko emaitzen  
irakurketa eta analisisia***

*François Mimiague – estatistikaria*

*Thomas Pierre – antropologoa*

## I. Sar hitza

### Gizarte testuingurua Iparraldean:

Abertzaleek lau hamarkadatan baino gehiago aldarrikatu ondoren, Iparraldearen instituzionalizazioaren gaiak, euskara eta euskal kulturari legezko babes koadroa emateko tresnatzat jotzen dena, legitimitatea lortu du edo gutxienez tokiko klase politikoaren eztabaida publikoan presentzia handiagoa badu.

Adibidez, gizartearen parte aski handi batek Bateraren ekimenarekin bat egiteak erakusten du indar harreman sinbolikoak tokia utzi diela euskal esferai, beren izaerak edozein izanik ere (abertzale, euskaltzale eta/edo departamentalistak), nahiz eta azken horiek elektoralki arrunt gutxiengoan izan. Borroka armatuaren bukaerak testuinguru berria ekarri du eta horren ondorioz iduri du gaur egun ezagupen politiko-territoriala ez dela lehen bezain transgresiboa agertzen, bai tokiko hautetsien aldetik, bai gero eta herritar gehiagoren ikuspegitik. Hasteko, bilakaera horrek norbanako harreman eta harreman kolektiboen paradigma aldaketa erakusten du Iparraldearen ezagupenari dagokionez. Testuinguru honetan, inkesta honen emaitzek abertzale esferak etorkizunean hartu beharko lituzketen postura estrategikoak eta lehentasunak islatzen dituzte, ondoko hauteskundeetan nahiz urrunagoko perspektibetan.

### Ezkerreko mugimendu abertzalearen problematika orokorra :

Inkesta hau egitera eraman duen problematika orokorrari dagokionez, hots ezkerreko mugimendu abertzalearen berrosatzea eta berau osatzen dituen indarren bilketaren problematikari dagokionez, dinamika amankomuna eraikitzeko gogoia argi agertzen dela azpimarratzekoa da. "Zatiketak gainditzeko garaia ote da ?" galderari erantzunez, gehiengo zabal batek (%90k) "bai" dio, %2k bakarrik "ez" diolarik.

Interesgarria da ere "Batasunaren strategi berriarekin bat egitea" elementua datu honi gehitzea. Izan ere, %68k bat egiten du estrategia berri horrekin (%30,8 "arrunt ados" da eta %37,8 "aski ados"), %2,9 bakarrik ez da ados edo berdina zaio. Bestalde, %92k (G16) indar abertzaleen biltzea lehentasuntzat jotzen du.

Beste elementu nagusi bat, mugimenduaren helburu historikoekin bat egitea (G5 eta G6): %86 gizarte sozialista baten xutik ezartzearen alde da eta %78 Euskal Herriaren independentziaren alde. Azpimarratzekoa da "gizarte sozialista" aldarrikapenak %59 lortzen duela, "EHaren independentzia" aldarrikapenak %52 lortzen duelarik.

## I. Inkesta

Hastapeneko ideia "ezkerreko abertzale militante" guziak kontsultatzea zen, nahiz eta muga zehatzik ez definitu eta ezin proposatu.

Ondorioz, *a priori* aurreikusi jende kopuruak baino jende gehiagok erantzun du. 800 eta 1.000 pertsona artean hunkitzea zen helburua, 600 erantzun lortzeko. Azkenean, 3.600 galdetegi banatu dira eta 1.650 itzuli dira.

Orokorki, jendeari ez zaio oroitu behar izan galdetegi itzultzea: itzuli galdetegi hiru laurdenak (1.250) finkatu epeetan itzuli dira.


"Herritar inkesta" horren erantzuteko askatasuna polimorfo eta heterogeneoa izan behar duen militantismoaren definizioaren arabera da, autodefinitze inplizitua islatzen duena. Galdetegiari erantzutea bera autodefinitze horren aspektuetariko bat da.

### a. Erantzunen banaketa geografikoa

%92,6k jatorri geografikoa (bizi lekua) zehaztu du. Horien artean, 17 (%1) Hegoaldean edo Euskal Herritik kanpo bizi dira.

Iparraldean, 2/3ak Lapurdin bizi dira (kostaldean bereziki). Inkestan arras ongi ordezkatuak badira ere, ez dira hain ongi ordezkatuak Iparraldeko biztanleria osoa begiratzuz gero eskualde horretan zenbat jende bizi den (%84) kontuan hartzen badugu.



Baxenafartarrak dira gehien ordezkatuak (%28 inkestan nahiz eta Iparraldeko biztanleriaren %11 izan bakarrik). Xiberoa da *a priori* gutxien ordezkaturik dena (%4 inkestan, %5 Iparraldeko biztanlerian).



### b. Sexuaren araberako banaketa eta adinen banaketa

%7,4k ez du zehazten gizonak edo emazteak den. Datu hori eman dutenen artean (1.527 pertsona), %56 gizonak dira eta %44 emazteak. Bi sexueta beraz kopuru onak baditugu.



Adinen banaketa urtez urte agertzen da, erantzun dutenek eman datuen arabera. Batz besteko adina eta adin medianoa 43 urtekoa da gutxi gorabehera.



### c. Erantzuteko erabili hizkuntza

Zeharkako datu hori hizkuntza batean edo bestean erantzuteko konsigna praktikoari esker badakigu. %51k euskaraz erantzun du, %49k frantsesez. "Oreka" bada beraz hizkuntzaren erabiltzeari dagokionez. Hori horrela, ratio honen aldaketa garbiak agertzen dira beste ezaugarrien arabera.

Horrela, tasak anitz aldatzen dira kategorien arabera. Adibidez, adinean aitzinatuak diren Baxe Nafarroko emazteetan tasa hori %37koa da, lapurtar emazte gazteetan %61ekoa delarik.



## - II. Adostasun zabaleko gaiak: euskara eta onarpen instituzionala

Euskara eta Iparraldearen onarpen instituzionala dira adostasun zabalena lortu duten gaiak.

### a. Euskara

Euskarari buruzko datuak irakurtzeko, euskararen erabilera soziala gero eta gehiago marginalizatzen duen testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartu behar da. Izan ere, 1991 eta 2006 artean, euskaldun kopurua %34tik %22,5era pasa da<sup>1</sup>. Hala ere, zenbait datu begiratu, euskararen aldeko militanteak baikor eta mobilizatuak egon daitezke euskarari kalte egiten dion egoera diglosiko larriari aurre egiteko : 16-24 adin tartean adibidez, euskaldun kopurua %11,6tik %16ra pasa da 1996 eta 2006 artean (*Le Journal du Pays Basque*, 2009/09/26).

<sup>1</sup> Ikus Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2006an argitaratu inkesta soziolinguistikoa. Honek dio Iparraldean biztanleen %22,5 euskara elebidunak direla, %8,6 elebidun hartzaileak eta %68,9 erdaldunak.

## **Euskararen egoeraren hobetzea**

Galdera honi dagokionez, %56k dio egoera pixka bat hobetu dela (5,6,7 notak 0 eta 10 arteko eskala batean), %31k dio egoera arras guti edo ez dela hobetu (G1\_1). Bataz besteko nota 5,1 da eta bilan nota guzien bataz bestean da. Noten bi herenak 4 eta 7 artean kokatzen direnez, ezin da erran iritzi orokorrak hobetze edo gibelatzearen alde egiten duela.

### **- Euskararen ofizialtasuna**

(G7\_1) Inkesta horren daturik esanguratsuenetariko bat euskararen ofizialtasunari buruzkoa da : ofizialtasuna epe labur/ertainean lortu behar dela diote galdetutakoek. Helburu hori da bataz besteko emaitzarik hoberena lortzen duena : 10/9,6. Erantzun dutenen artean, kasik denek (%97) diote euskararen ofizialtasuna lortzea “garrantzitsua” dela. “10” nota eman dutenak %86 baino gehiago dira.

Emaitza hori EEPri buruzko galderarekin (G13\_3) osatu behar da : %19k dio erakunde horrek euskararen ezagupena “trabatzen” duela eta %56k “laguntzen” duela. Eta 1 eta 10 arteko eskala batean, %13k “5” nota hautatzen du. Bestalde, irakaskuntza elebidun publikoari dagokionez (G13\_5), %30k dio sare horrek Iparraldearen ezagupen politikoa “trabatzen” duela, %40k “laguntzen” duela. %19k ez du ez bata, ez bestearen alde egiten (“5” nota 0 eta 10 arteko eskalean) eta %7k “ez daki” erantzuten du. Irakaskuntza elebidun publikoaren eraginari dagokionez, iritziak anitzak dira beraz.

Testuinguru horretan, %90k dio euskararen ofizialtasunaren aldeko Deiar bezalako kanpainak (G15\_6) “lehentasun” bat direla: “lehentasuna” (%34), “lehen lehentasuna” (%56), “ertaineko lehentasuna” (%4).

Euskarari buruzko emaitzek argi erakusten dute abertzale esferentzat euskara dela militaritzen duten gizartearen kultur-identitate erreferentzial amankomuna.

-

## **b. Iparraldearen onarpen instituzionala**

Inkesta horren bigarren irakaspen nagusia, Iparraldearen onarpen instituzionalari buruzko emaitzei lotua da. Gai horrek ere adostasun zabala lortzen du. Horrela, “Iparraldearen ezagupen politiko-instituzionala lortu” galderari (G7\_3), %85ek baino gehiagok ezagupen hau lortzea “garrantzitsua” edo “arras garrantzitsua” dela dio (8 eta 10 arteko notak 0 eta 10 arteko eskala batean). Hizkuntzaren ondotik, emaitzarik hoberena lortzen duen helburua da.

Bestalde (G8), gehiengoa (%83) ados da – “arrunt ados” (%49) eta “aski ados” (%35) – errateko autonomia estatutuaren aldarrikapena lehen urratsa dela frantses Estatuarekiko Euskal Herriaren emantzipazioaren bidean.

Azkenik (G9), %83k dio gaur egun ezagupen politiko-instituzionalaren ideiak sustengu “zabalagoa” (%52) edo “lehen bezain zabala” (%31) duela Iparraldeko gizartean. Testuinguru horretan (G7\_9), %85k dio “garrantzitsua” edo “arras garrantzitsua” dela Iparraldean eskumen zabaleko unibertsitatea lortzea (7 eta 10 arteko notak 0 eta 10 arteko eskala batean), %50ek “10” nota ematen duelarik. Proposatu 20 helburuak kontuan hartuz gero, arteko emaitza hau emaitza aski ona da.

Frantses Estatuarekiko indar harreman politikoari dagokionez, “Gaur egungo frantses testuinguruan, Iparraldearen ezagupen instituzionala lorgarriagoa iruditzen zaizu gaur egun duela hamar urte baino? Aukera gutxiago badela? Berdintsu garela?” galderari erantzunez (G10), %52k dio “berdintsu”, %23k “aukera gutxiago” eta %14k “lorgarriagoa”.

Bigarren mailako azken puntu bat, hautatu instituzioetan (herrietan, herriarteko egituretan, Kontseilu Nagusian) abertzaleen eragina (G1\_12). %48k dio ez dela anitz handitu (5 eta 7 arteko notak). Bataz besteko nota 5,1ekoa da, nota global kaskarra baino pixka bat altuagoa.

Instituzionalizazioari buruzko gai hau puntu gakoetarikoa da baina bere gauzatzea zaila agertzen da.

### **Bateraren ekimenari buruzko iritzia**

Inkestak galdera anitz du Batera plataformari buruz (G11\_1). Gehiengo zabal bat (nota : 7,1 (%70) %23k "10" nota eman duelarik) "ados" edo "arras ados" da errateko Iparraldearen onarpen politiko-instituzionalaren inguruan Baterak jendarte sektore zabalak mobilizatzea lortu duela (G11\_12). Baina ez da pentsatzen Bateraren lanari esker Euskal Herriaren ahotsa Parisen entzuna dela (5,4ko emaitza, %20k ez du erantzun).

"Baterak abertzaleen aldarrikapen instituzionala urtzen du eta bere lana sektore zabalekin lan egitera mugatzen da" ideiek "5" nota lortzen dute : %25ek ez du erantzun. Item horiek dute zalantza gehien sortzen.

Etorkizunari begiratzen badiogu, "Baterarekin batean Lurralde Elkargoaren aldeko dinamikan segitu behar dugu" galderari erantzunez (G12\_1), jendeak arras baikorki erantzuten du : 7,3 nota. %13 "ez da ados" edo "erabat kontra", %62 "ados" edo "arrunt ados" delarik. %33k "10" nota ("arrunt ados") ematen du. %11k "ez dakit" erantzuten du.

Antzeko emaitza "Lurralde elkargoaren aldarrikapena bateragarria da autonomiarenarekin" galderarekin (G12\_2). Nota 7,0 da. %15 "ez ados" edo "arrunt kontra" da, %54 "ados" edo "arrunt ados" delarik. %26k "10" nota eman du. %16k "ez dakit" erantzuten du.

### **Iparraldearen erdi-instituzionalizazioa (Pays basque 2010,...)**

Bestalde, galdera batzuk erdi-instituzionalizazioari buruz dira. Abertzale hautesleagoaren artean iritziak anitzak dira 1990. urteetan hasi erdi-instituzionalizazioaren eraginkortasunari buruz.

Galdetutakoen ustez, Euskal Kultur Erakundea eta Euskararen Erakunde Publikoa dira, urrundik ere, onarpen politikoaren proiektua gehien errazten direnak, 7,1 eta 6,4 notekin hurrenez hurren. Beste tresna/egituren aitzinean dira. Bestalde, jende anitzek erantzun du galera hori (%12k bakarrik ez du erantzun).

Gero, hiru instituzio maila berean kokatzen dira, nota kaskarrekin. Emaitzak interpretatzeko zailak dira.

Garapen Kontseilua (G13\_1): nota: 5,3. %23k dio sasi-instituzio horrek Iparraldearen onarpen politikoa tratatzen duela ; %30ek laguntzen duela dio, %25ek "ez dakit" erantzuten du. %16k ez du iritzi garbirik eta "5" nota hautatzen du. Zenbaki hauek ikusiz erran daiteke erantzun dutenen %41ek, hots proportzio handi batek, zalantzak dituela.

Antzeko joerak atxematen dira Hautetsien Kontseiluari dagokionez (G13\_2): nota berdina. %25ek dio sasi-instituzio horrek Iparraldearen onarpen politikoa tratatzen duela, %31k laguntzen duela, %22k "ez dakit" erantzuten du. %16k ez du erantzuten "5" nota hautatuz. Beraz, zalantzan direnak %38 dira.

Nota berdina irakaskuntza elebidun publikoarekin, erantzuten ez dakitenak guti dira (%12). Hizkuntza (adostasun zabala lortzen duena) eta tresna dimentsioen artean, erantzun dutenak bigarren aspektuari lotzen dira.

EPFL (G13\_4): nota: 4,9. %24k dio erakunde horrek Iparraldearen onarpen politikoa tratatzen duela, %23k laguntzen duela. %31k ez du erantzuten eta %14k zalantzak ditu. Zalantzan direnak beraz : %45. Zenbaki hori altua da seguru aski egitura hau hain ezagutua ez delako.

Aipa dezagun bestalde CA64ko Baionako antenari buruzko nota arras kaskarra : 2,7.

## **Udalbiltza**

Bi galdera badira Udalbitzari buruz. Ez da lehen tokian lehentasunaren aldetik. %72k dio instituzio hau “lehentasun” bat dela, %35ek “lehentasuna”, %37k “lehen lehentasuna”. %11k dio Udabiltza “ertaineko lehentasuna” dela. %10ek “ez dakit” erantzuten du (G15\_5). Bestalde, %69k pentsatzen du egitura hau sendotu behar dela (G17\_1).

## **Kanpaina masiboak instituzionalizazioaren inguruan**

Azkenik, instituzioaren atala hesteko, jendeak dio instituzionalizazioari buruzko kanpaina masiboak antolatzea (G15\_6) lehentasuna dela (« ertaineko lehentasuna » %14, « lehentasuna » %41, « lehen lehentasuna » %35). Testuinguru horretan, Laborantza Ganbara (G15\_8) da lehentasunen aldetik ongien sailkatua dena (« ertaineko lehentasuna » 4%, « lehentasuna » %39, « lehen lehentasuna » %53).

## **III. « Azpi eremuak » : *Preso politikoak, Lurra eta etxebizitza, Laborantza Ganbara, Gazteria, Sindikalismoa eta Feminismoa***

### **a. Preso politikoak**

Preso politikoaren askatzea (G7) epe labur/ertainean mugimendu abertzaleak lortu beharreko helburua dela diote galdetutakoek (%63k “10” nota eman du): %90ek garrantzitsutzat jotzen du. %89k dio helburu hau lortzeko mobilizazioak segitu eta behar direla. Gai hori lurra eta etxebizitzaren inguruko espekulazioa (%95) eta Laborantza Ganbara sendotzeko beharraren gibelean (%92) kokatzen da.

Beste hainbeste jendeak dio epe laburrean euskal preso politikoentzat estatutu politikoa lortu behar dela eta presoek gatazkaren konponketan parte hartu behar dutela.

### **b. Lurra**

Erantzun dutenen ustez, lurra eta etxebizitzaren inguruko espekulazioaren moteltzea da 17 arloen artean gutxien aitzinatu dena (G1). 3,1eko notarekin, emaitza txarrekoa da. %21ek dio, “0” nota emanez, arlo honetan ez garela batere aitzinatu.

Gibelatze hau gehiago sentitzen da Lapurdin (%24) Xiberoan (%15) edo Baxe Nafarroan (%16) baino.

Bizi tokia edonon izanik ere, lurraren gaia abertzaleen lehen kezketariko bat da. “Espekulazioa gelditu” helburua hirugarren tokian da epe labur/ertainean lortu beharreko helburuen artean (%65ek dio arras inportante dela “10” nota emanez). Batz besteko nota 9,2 da, euskararen ofizialtasuna eta Iparraldearen onarpen politiko-instituzionalaren (%65) helburuen gibelean.

Lurra eta etxebizitzaren espekulazioaren erritmoa moteltzea sendotu beharreko lehentasunezko lau borroka moten artean kokatzen da. %95ek lehentasuna dela dio eta lehen lehentasuna gisa agertzen da, Laborantza Ganbararen aldeko borrokaren aitzinean (%92), euskararen ofizialtasunaren aldeko kanpainen aitzinean (%90) edo presoen aldeko mobilizazioaren aitzinean (%89).

Espekulazioaren kontrako lana ondoko urteetan sendotzea “lehen lehentasuna” dela dio jendeak. Hiru lurraldeetan sentitzen da lehentasun hori.

***Etorkizunean sendotu beharreko borroka motak –  
Espekulazioaren kontrako mobilizazioak (G15\_3)***

*Erantzunen banaketa (%)*

	Kopurua	Erantzunik ez	Ez lehentasuna	Ertaineko lehentasuna	Lehentasuna	Lehen lehentasuna	Orotara
Lapurdi	1.030	1	0	3	36	59	100
Baxe Nafarroa	424	1	1	3	31	63	100
Xiberoa	55	2	0	0	47	51	100

Alta, erantzunak partzialak dira EPFLi buruz. Inkestan, EPFL “frantses Estatuak eta tokiko klase politikoak gizarte eragile zenbaiten partaidetzarekin martxan jarritako egitura” gisa definitzen da (G13-4). %40k ez duenez erantzun, ondorioztatzen ahal da beharbada egitura ez dela ezagutua. Gero, logikoa denez, gai horrek neutraltasun handia ekartzen du erantzunetan (4,93 nota hiru lurraldeetan).

Espekulazioa lehen lehentasunetan da beraz. Hori esplikatzen ahal da kontuan hartzen badugu gai hori ez dela ideologikoa eta garrantzitsua dela.

**c. Baserritar laborantza**

Lurra eta etxebizitzaren inguruko espekulazioaren kontrako lana ez bezala, gai hori da gehien aitzinatu jendearen ustez (G1). Nota 6,75 da, altuena da, urrundik ere. %10ek “10” nota eman du. Ez da beste gairik proportzio hori lortu duenik.

Denbora berean, ekologia mailan, ingurumenaren defentsak (G1) ez du horrelako pertzepziorik eragiten : 5,1 nota. %1,5ek bakarrik “10” nota ematen du. Desberdintasun argia egiten da Iparraldean laborantza arloan garatzen ari diren lan estrategi eta metodoen eta hobetze ekologikoen artean.

Baserritar laborantzaren sendotzea (G7\_18) epe labur/ertainean mugimendu abertzaleak lortu beharreko lehen helburuetariko bat da galdetutakoentzat, euskararen ofizialtasuna, Iparraldearen ezagupen politiko-instituzionala eta lurra eta etxebizitzaren inguruko espekulatzearen gelditzearen ondotik. Orokorki, laborantza munduak interesa pizten du (%82, %54k “arras inportantea” dela dioelarik). Mugimendu abertzaleak epe labur/ertainean lortu beharreko helburu bat da laborari gazteen plantatzea laguntzea (G7\_19).

Logikoki, batz besteko nota “8,9” da. Gaiak interes handiagoa du 35 urteko gorakoen artean. 35 urte baino gutxiago dutenetan, nota “8,6” da, 35-59 urtekoen artean “9” eta 60 urte baino gehiago



dutenetan “9,1”. Alde horiek erakusten dute gazteenek interes gutxiago dutela eta zaharrenak kezkatzen direla laborantzaren etorkizunarentzat Iparraldean<sup>2</sup>.

SUATari buruz (G 13\_7), galdetutakoek diote egitura hori dela Iparraldearen onarpen politikoa gehien trabatzen duen tresna (%29k “0” nota eman du, %52k “5” azpiko notak, %25k ez du erantzun). Erantzun dutenen artean hiru laurdenek egitura hori ezkerki baloratzen dute. Hori esplika daiteke Iparraldean Laborantza Ganbara bat xutik ezartzeko aldarrikapenarekin eta azken urteetan Laborantza Ganbarak egin lanarekin.

Laborantza Ganbararen alde sendotu beharreko dinamika, borroka edo ekimena bigarren lehentasunetan agertzen da (%92rentzat “lehentasuna” da), espekulazioaren ondotik (%95). Pentsa daiteke emaitza horrek islatzen duela bai laborantza arloan ezagupen instituzionala lortzeko nahia, bai Laborantza Ganbarak egin lanaren errekonozimendua lortzeko nahia.

Ezkerreko abertzaleen artean, adostasun zabala bada Iparraldeko baserritar laborantzaren inguruan eta laborantza arloan instituzio propioak ukateko nahiaren inguruan.

#### **d. Gazteria**

##### **“Gazteen bizi baldintzak hobetu” helburua**

Bilan ezezkorretariko bat da (G1-5). “3,5” notarekin, azken aitzineko postuan da gutxien aitzinatu diren helburuen sailkapenean.

%13k erantzun du, “0” nota (“ez da aitzinatu”) anitzek eman du, “espekulazioa” (%21) eta “kostalde eta barnealdearen arteko desoreka” (%10) gaietan bezala. Adinak ez du eraginik erantzunetan, item horren batz besteko notak abantzu berdinak baitira (“3,4” eta “3,7” artean) adin klase guzietan.

Hala ere, “15-19” eta “20-24” adin tarteetan dira notarik txarrenak (%24k eta %17k “0” nota eman du, hurrenez hurren, erantzun duten guzien artean %13k bakarrik nota hori eman duelarik).

##### **Gazteriari lotu problematiken eragina mugimendu abertzalean**

Bilan ezezkor horretatik abiatuz, orain jakin behar dena da gazteriari lotu problematikek zer pisu duten mugimendu abertzalearen sendotzean. Eraginik ote dute? Zer-nolako eragina?

Bilanaren batz besteko nota 5,3 da, nota kaskarra da. Gazteek beren bizi baldintzak hobetzeko borroka ez da baitezpada mugimendu abertzalea sendotzen duen oinarritzko faktoreetariko bat (G2-4). Banaketa argia bada (estatistikoki arras esanguratsua) 35 urtepekoen kategorian (homogenitatea “20 urtepeko”, “20-24 urte”, “25-29 urte” eta “30-34 urte” kategorien artean), batz besteko nota 5,8 da. Beste adin kategoria guzietan batz besteko nota 5,0 da, joera berezirik gabe. “35 urte” adinak haustura markatzen duela dirudi.

Bestalde, gazteen emigrazioa (6,2 nota eta %15ek “10” nota eman du) traba aski inportantetzat jotzen da mugimendu abertzalearen aitzinamenduarentzat, errepresioa eta borroka armatua baino handiagoa baina mugimendu abertzalearen zatiketak baino anitzez txikiagoa (%37k “10” nota eman du) (G3-4).

---

<sup>2</sup> Kategoría sozio-profesionalak kontuan hartuko lituzkeen beste inkesta bat eginez interes zuzena neurtzen ahalko zen. Adibidez laborari batek helburu horrekiko sentsibilitate handiagoa ukaten ahalko zuen laborantza munduarekin deus ikustekorik ez duen pertsona batek baino..

## **Gazteriari lotu helburuen definitzea ondoko urteetarako**

Orain, erantzun dutenek gazteriari zer toki egiten dioten ikusi behar da. Inkestan, epe labur/ertainean ezker abertzaleak finkatu beharko lituzkeen helburuak begiratzuz gero, hiru helburuk gazteria hunkitzen dute : beren bizi baldintzen hobetzea, eskumen zabaleko unibertsitatea lortzea eta laborari gazteen plantatzerako laguntza.

Lehen oharra : batz besteko notak biziki altuak dira (8,5 eta 8,9 artean). Helburuen garrantziaren eskalan aski goian kokatua, datu horrek ez du hala ere informazio argirik ematen gazteriari ematen zaion interes objektiboari buruz, nota horiek hain gora izanki. Goian kokatu nota horiek guziek ez dute ahalbidetzen gazteriaren aldeko erantzunen berezitasunik filtratzen. Helburu guziek garrantzitsuak direla dirudi.

Gorago ikusi dugun bezala, laborari gazteen plantatzerako laguntzaren kezka handitzen da adinarekin. Gauza bera gertatzen da beste bi helbururentzat : helburua garrantzitsuagotzat jotzen da adinean aitzinatu arau. Alta, pentsa zitekeen gazteenek gazteriari lotu problematikak "arras inportanteak" zirela pentsatzen zutela.

Horrela, bizi baldintzen hobetzeari dagokionez, 25 urte baino gutxiago dutenetan batz besteko nota 8,0 da, beste nota guziak 8,4 eta 9,3 artean kokatzen direlarik. Horretan, haustura azpimarragarria da baina berriz diogu horrek ez duela erran nahi gazteak ez direla kezkatzen helburu horiekin baizik eta ez dituztela "arras inportantetzat" jotzen.

"Iparraldean eskumen zabaleko unibertsitatea lortu/sortu" helburuaren egoera aitzineko helburuarekin aldera daiteke, itemaren izaerak garrantzirik ez balu bezala (nota: 8,6). Gai honetan trantsizioa ez da hain markatua, "25-29" klaseak lotura egiten du "25 baino gutxiago" eta "30 baino gehiago" klaseen artean.

Ondoko urteetan sendotu beharreko "dinamika, borroka edo ekimenen" lehenetsuen artean, bakar batek gazteriari egiten dio esplizituki erreferentzia (G15\_10). Beste lehenetsunak gehiago lotuak dira populakuntza bere osotasunean hartzen duten lehenetsun sozial, ekologiko eta politikoei, "lehenetsunezko" publiko berezirik bereizi gabe. Ikuspegi horretatik « gatzetxeen aldeko dinamika » da gazteriari lotu item bakarra.

Beste itemak bezala gatzetxeen aldeko dinamikari lotutakoa lehenetsuntzat jotzen bada ere, lehenetsun gutxiagoko helburutzat hartzen da. Azken aitzineko itema da, klima berotzearen aitzinean (%60k dio "lehenetsun" bat dela), eta %71k "bakarrik" dio "lehenetsuna" dela. Zehatz-mehatz begiratzuz gero, %44k lehenetsuntzat jotzen du, %27k dioelarik "lehen lehenetsuna" dela.

## **e. Sindikalismoa**

### **Militante abertzale bat sindikatu batean parte hartzeko irizpideak**

4,91 batz besteko notarekin, erantzun dutenek zalantzak dituzte mugimenduaren aitzinamenduari dagokionez sindikalismo abertzale baten txertatzeko helburuarekin (G1\_4). Berezitasunak erantzun ez dutenen tasa handian datza (%11). Abstentzio tasa handi hau esplikatu daiteke pertsonen gehiengo ez baita sindikatu batean afiliatua eta beraz problematika sindikaletatik urrun baita, eta beraz ez baitu bere burua gai edo legitimoa ikusten erantzuteko.

Gehiengo afiliatua ez bada ere, hala ere %75ek dio borroka sozialak (sindikalak, feministak, etxebizitza arlokoak, erretireten aldeko mugimendua...) abertzaleen borroka bezain garrantzitsuak direla (G21). %7 dira garrantzi gutxiagokoak direla pentsatzen dutenak (%12 "garrantzi handiagoa").

Ber garrantzi emate horrek kontrastatzen du mugimendu batean sindikatuen tasa minotarioarekin (ikus behegaro).

%28k dio sindikatu abertzale batean afiliatua dela, “ez afiliatuak” %49 direlarik eta %23k ez duelarik erantzuten (G24). Inkestak horri buruzko xehetasunik ematen ez badu ere, pentsa daiteke azken horien artean erretretan direnak, langabetuak edo ikasleak badirela.

Disonantzia hau esplikatu daiteke beharbada borroka sozialen mugimendua “sindikatu” batetara mugatua baita, *a fortiori* sindikatu abertzale batetara. Gainera, “borroka sozialen” definitzea aski zabala denez, zaila da erantzun kopuru handia biltzea problematika horri buruz.

Gisa guziz, hemen sindikatu batean afiliatua den pertsonen tasa (alta abertzale izaerara mugatzen delarik) anitzez handiagoa da hexagonoan sindikatu batean afiliatua dena baino (%10 baino gutxiago). Baliteke konzernatuak diren pertsonen berezitasuna izatea.

Afiliatuen artean, %80 ados da (%50 “arrunt ados”) sindikatu abertzale batean afiliatzeko beharrarekin, %25 (%11 “arrunt ados”) ados delarik errateko frantses sindikatu batean afiliatzeko posibilitatea badela.

Ez afiliatuen artean, erantzunak ez dira hain argiak : %47k dio sindikatu abertzale batean afiliatu behar dela (%18 “arrunt ados”), %48k dioelarik legitimoa dela frantses sindikatu batean afiliatzea (%22 “arrunt ados”).

Disonantzia bada beraz sindikatu abertzale batean afiliatzearen arabera. Abertzale sindikatu batean afiliatu direnentzat, bi proposamenak kontraesankorrak dira, edo bederen ez koherenteak. Sindikatu abertzale batean afiliatuak ez direnentzat, sindikatu abertzale batean edo frantses sindikatu batean afiliatzeak ber legitimitatea badu (frantses sindikatu batean afiliatzea aldekatasun pixka bat handiagoa lortzen du ere). Erantzun duten guzien artean, gehiengoak abertzaleak sindikatu abertzale batean afiliatzearen alde da : %57 alde da, %16 kontra delarik. Frantses sindikatu batean afiliatzearen ideiak kontrako iritzia sortzea logikoa litzatekeen arren, %39k dio abertzale bat “frantses sindikatu batean afilia daitekeela”, %29 kontra delarik.

Horiek horrela, ez da iritzi garbirik azalarazten, nahiz eta gutxiengo ttiki batek pentsatzen duen beharrezkoa dela ELB edo LAB bezalako sindikatu batean afiliatzea. Afiliatze abertzale bati lehentasuna ematen diotenak gehiago badira ere, badirudi errepresentazioetan moztura bat badela, partziala bederen, lan esfera eta esfera politikoaren artean.

Irizpidea	Ados	Ez alde, ez kontra	Ez ados	Erantzunik ez
ELB edo LAB bezalako sindikatu batean afiliatu beharko luke	57	15	16	11
Ez da problemarik frantses sindikatu batean afiliatua izatea	39	19	29	13

Sindikatu abertzale batean afiliatzeko beharrari dagokionez erantzunak aldakorrak badira ere, ezkerreko zenbait frantses sindikaturekin eraman beharreko elkarlanak (eta ez afiliatzea...) ez du

erran nahi ezker-ezkerrean diren sindikatuekiko hurbiltzeko borondatea badenik. Horrela, frantses sindikatu batekin lanean aritzeko lehentasuna (lehentasuna + lehen lehentasuna) ez da %25era iristen. Gainera, ez-erantzunen kopurua %40tik %58ra doa. Arlo honetan Sud sindikatua da ongien ikusia dena (lehentasuna: %24). Ondotik CGT et CFDT sindikatuak heldu dira %22-23rekin. Beste sindikatuek ez dute %15 gainditzen. -

### Sindikatuakiko elkarlana<sup>3</sup>

Sindikatua	Lehentasuna	Ez da lehentasuna	Erantzunik ez
SUD	24	27	49
CGT	23	36	41
CFDT	22	37	41
CNT	15	30	55
FSU	10	33	57
UNSA	6	36	57
CFTC	5	41	54
Orokorrean	<b>18</b>	<b>38</b>	<b>45</b>

### f. Feminismoa

%45 baino gehiagorentzat “arras garrantzitsua” (“10” nota) da epe labur/ertainean genero diskriminazioarekin bukatzea (G7). Kontzientzia hartze hau, hala ere, bi faktoreekin uztartu behar da.

Lehenik, batz besteko noten hierarkia kontuan hartu behar da. Kontrastearen<sup>4</sup> bidezko argitze lana egin behar da, emaitza hori beste itemenekin alderatuz. Erantzun dutenek helburu honi eman dioten garrantzia gutxiagotu gabe, erlatiboa dela erran daiteke : genero diskriminazioen bukaera da gutxien aipatzen dena epe labur/ertainean tratatzeko helburu gisa<sup>5</sup>. Kontuan hartu behar da item horrek duen izaera “orokorra” pragmatikoagoak diren beste item batzuekin alderatuta (« AHT proiektua gelditu », « errepresioaren intentsitatea jautsarazi », « laborari gazteen plantatzerako laguntza »... ). Agian azken horiek konkretuagoak iruditzen zaizkie galdetutakoei.

Baina maila ertaineko garrantzi hori beste aldagai batekin azal daiteke : sexuarenarekin. Hemen, 0 eta 4 arteko notek emazteen %4 eta gizonen %7 baino gutxiago ordezkaten dute, erantzun ez dutenen kopuruen proportzioak anekdotikoak direlarik.

<sup>3</sup> Irakurgarritasun handiagoa ukateko, inkestan proposatu 4 lehentasun mailak 2 kategoriatan bildu dira, bata ez-lehentasun praktikoan (ez da lehentasuna + lehentasun gutxikoa), bestea lehentasun efektiboan (lehentasuna + lehen lehentasuna).

<sup>4</sup> Charles Taylor

<sup>5</sup> Proposatu 20 itemetatik abiatuz, desberdintasunak egin dira. Orotara, 7 klase definitu dira. Adibide gisa, euskararen ofizialtasuna A klasean da 9,61 batz besteko notarekin genero diskriminazioen bukaerak 8,24ko nota duelarik.

Desberdintasun nagusiak “10” notaren ematean datza: item guzietan (4tik 9ra) “gizonen nagusitasuna” agertzen bada ere, hemen “10” nota emazteen %54k hautatu du, gizonen %38k bakarrik hautatu duelarik. Ezkerreko mugimendu abertzalean ere badirudi borroka feministak “emazteen aferan”-tzat jotzen direla.

Badirudi baieztapen hori “desberdintasun eta genero diskriminazioen kontrako borroka feministen” (G1\_7) bilaneko notetan islatzen dela. Lehen begiradaz, sexu aldagaiaren arabera banaketak antzekoak dira: “5” da notarik altuena, punta bat “0” notan (ez da aitzinatu) eta “ez-erantzun” kopuru inportantea. Banaketa hurbilagotik begiratzen badugu, “0” eta “6” arteko notak gehienetan emazteek ematen dituzte, “7” eta “10” arteko notak (anitz aitzinatu da) gehiagotan gizonek ematen dituztelarik.

Orokorki, emazteak kritikoagoak agertzen dira borroka feministen aitzinamenduari dagokionez, beharbada arrazoi objektibo gehiago dituztelako gizonen baino. Asmo deklarapenetaz haratago, iritziak emeki aitzinatzen direla dirudi.

Emaitzak ikusiz, gaur egun feminismoa ez da beraz ezkerreko mugimendu abertzaleak tratatu behar duen lehentasun bat – erlatiboa bada ere – galdetutako ustez. Ildo beretik, kapitalismoari aurre egiteko gizarte ez patriarkalaren eredu (G20) sailkapenaren bukaeran kokatzen da, hazkunde ezkorren kontrako borrokaren aitzinean: %46k kontzeptu “garrantzitsua” edo “arras garrantzitsua” dela badio ere, laurden batek dio ez dela “garrantzitsua” edo “garrantzi gutxikoa” dela. Azkenik, erantzun duten guzien artean, %30ek ez du erantzun nahi izan.

Erantzun horiek, aitzinekoak bezala, sexu aldagaiarekin kontrastatu behar dira: emazteen %26k “arras garrantzitsua” hautatzen dute, gizonen tasa %17koa delarik. Gizonen “garrantzi gutxikoa” (%30) edo “garrantzi oso gutxikoa” (%18) hautatzen dute. Ezbaian diren kopurua ere kontuan hartu behar da: gizonen eta emazteen %20k “ez daki” hautatzen du.

### **Borroka sozialen tokia abertzaleen borrokan**

Ezkerreko mugimendu abertzalearen borrokan dimentsio sozialaren pertzepzioari dagokionez, gehiengo handi batentzat “borroka sozialak” “abertzaleen borroka” “bezain garrantzitsuak” dira (75%). Horrek argi erakusten du borroka sozialek leku osoa dutela ezkertiar eta abertzale proiektuan. %12k dio “garrantzitsuagoak” direla abertzaletasunera bakarrik mugatzen diren borrokek baino. Paraleloki, %31k dio mugimendu abertzalea ez dela aski engaiatua borroka sozialetan. Alderantziz, %50ek dio borroka sozialetan “aski engaiatua” dela.

## **IV. Ekimenei buruzko iritziak**

<i><b>Ekimena</b></i>	<i><b>Baikorra</b></i>	<i><b>Eszeptizismoa</b></i>	<i><b>Ezekorra</b></i>	<i><b>Erantzunik ez</b></i>	<i><b>Orotara</b></i>
<i>Bilduren hautagaitzak Hegoaldean</i>	83	5	1	11	100
<i>ETAren su-etena</i>	82	8	2	8	100
<i>Sorturen estatutuak</i>	63	8	2	27	100
<i>Gernikako akordioa</i>	63	6	0*	30	100
<i>EArekiko hitzarmen</i>	57	16	1	26	100

<i>estrategikoa</i>					
<i>Bruselako adierazpena</i>	56	9	1	34	100
<b>Orokorrean</b>	<b>67</b>	<b>9</b>	<b>1</b>	<b>23</b>	<b>100</b>

Orokorki, iritziak (G34) aski baikorrak dira (%67 orokorrean), iritzi ezezkorrik ez delarik (%1) eta eszeptizismoa ahula delarik (%9).

*ETAren su-etena* eta *Bilduren hautagaitza Hegoaldean* dira iritzi baikorrena biltzen duten ekimenak (%82 eta %83 hurrenez hurren). Erantzun ezezkorren tasa apalak (%2 eta %1 hurrenez hurren) ezbaian diren pertsonen tasa apalarekin bat egiten duenez (%8 eta %11), bi ekimen horien inguruan adostasun zabala badela ondoriozta daiteke.

Erantzun dutenen artean beste ekimenak baikorki baloratzen badira ere, aldeak ikus daitezke ezbaian diren pertsonen tasen artean. Aldakortasun horrek ez du hala ere erantzun ezen batz besteko tasa handia gordetu behar (%23), galdera batzuetan tasa hau %34ra arte igo daitekeelarik.

Gero, *Sorturen estatutuak* eta *Gernikako Akordioa* ekimenak atxematen ditugu, iritzi baikorren %63ekin baina bakoitzak %27 eta %30eko tasa duelarik “erantzunik ez” lerroan. Horrelako tasak (erantzunik ez : %26 eta %34) *EArekiko hitzarmen estrategikoa* eta *Bruselako Adierazpena* ekimenean ere agertzen dira (iritzi baikorrak: %56-57). Lau ekimen horiek multzo homogenea osatzen dute, beste bi ekimenak hobeki ikusiak direlarik.

Galdera honetan, daturik garrantzitsuenetariko bat da ezjakintasunaren tasa. Hedabideetan ekimenak anitz aipatzen direlarik, jakintasun tasa handitzen da.

## V. Mugimendu abertzalearen perspektibak

### a. Estrategi politikoa : mugimendu abertzalearen elkarlanaren beharra

Indar abertzaleen biltzeari buruz (G16), jende anitzek eman du iritzia : %92k erantzun du eta elkarlana eramateko ideiarekin bat egiten du anitzek. Hala ere, ondoko zenbakiak kontuan hartu behar dira : %23 “aski ados” da, “arrunt ados” direnak %69 direlarik.

Galdetutakoen gehiengo zabal batentzat (%82), mugimendu abertzalearen aitzinamenduak (G31) ezker abertzalearen sentsibilitateen zatiketen gainditzeak baldintzatzen ditu.

Erdiak baino gehiagok bakarrik (%52) dio “arrunt ados” dela, “aski ados” direnak %30 direlarik. Maila ertaineko adostasun horrek erakusten du mugimenduan zartadura oraino bizirik dela. Moztura hau erlatibizatu behar da hala ere, %90ek (G32) pentsatzen duelako ezker abertzalearen sentsibilitate desberdinen arteko zatiketak gainditzeko garaia dela (“ez”: %2 ; “erantzunik ez”: %7).

### Borroka armatua (G3) :

Elementu berezi bat agertzen da estatistika mailan : borroka armatua. Jendearen ustez « ez du anitz laguntzen », erantzun ez dutenak %4,4 dira. Noten banaketa handiagoa da beste gaietan baino. Kohesio gutxiago bada.

Emaitzen arabera, azpimarratu behar da testuinguru estrukturala (besteak beste “mugimendu abertzalearen baitako zatiketak”, “BAMeko pisu demografikoa” edota “gazteen emigrazioa”) mugimenduaren aitzinamenduarentzat trabagarriagozat jotzen dela borroka armatua baino, faktore hau 6. tokian kokatzen delarik. Borroka armatua faktore trabagarritzat jotzen bada ere, ez da faktorerik nagusitzat jotzen, are gutxiago gaur egungo testuinguru politikoan galdera hau ez delarik gehiago aktualitatezkoa.

### b. Euskal Herri mailako ibilmoldea

Segitu beharreko estrategia politikoaren inguruan mugimendua aski ados bada ere, ez da gauza bera gertatzen ibilmoldearekin. Laburki, erran daiteke militanteak ados direla defenditu beharreko baloreei buruz, lortzeko ezarri beharreko normei buruz baina ez baitezpada prozesu pragmatikoari buruz. Gehiengoak (%84) Euskal Herri mailako ezkerreko mugimendu abertzale bakarria eraikitzea gutxienez interesgarria dela pentsatzen badu ere, “beharra”-ri buruz clivage bat bada: %45ek dio “beharrezkoa” dela horrelako mugimendu bat antolatzea, %39k ideia “interesgarria izan daitekeela” pentsatzen duelarik.

%10ek pentsatzen du ezker abertzalearen antolaketa Euskal Herri mailan (Iparralde eta Hegoalde) egitea ez dela “beharrezkoa”: %7k “ez beharrezkoa”, %3k “desegokia”, %6k ez du erantzuten.

Tendentzia desberdin horien arteko zatiketa handitzen da horrelako mugimendu baten antolaketa definitzerakoan.

Clivage bat agertzen da ibilmolde integratua nahi duen jendea (%34) eta koordinaketa/konfederazioa antolaketa (%40) nahiago duen jendearen artean. Iparralde eta Hegoaldearen arteko ibilmolde koordinatua baten eredia hautatzeko joera bada beraz. Aukera hau erlatibizatzen ahal da erantzun ez dun kopuruarekin. Izan ere, “erantzunik ez” kopuruak (%26) beste lau proposamenen emaitzak gaitzitzen ditu.

Bestalde zuhertasun handiz jokatu behar da galdera honen erantzunak lau itemen artean banatuak baitira.

Hala ere, orokorki emaitzek erakusten dute nazio ibilmoldea hobesten dela. “Paris nola mugiarazi?” galderari erantzunak hori baieztatzen du. “Nazio dimentsioan oinarritu tresna konkretuen martxan jartzea da oinarritzko tresna Iparraldeko antolaketa aldatzeko” itemak du emaitzarik onena lortzen.

Nazio mailan osoki integratua, mugimendu bakar batean	%15
Ibilmolde integratua baina ibilmolde autonomoa Iparraldean	%19
Bi mugimenduren ibilmolde koordinatua (Iparralde eta Hegoalde)	%18
Mugimendu desberdinen nazio konfederazioa (Iparralde eta Hegoalde)	%22

### c. Estrategia hauteskundeetan

Hauteskundeetan garatu beharreko strategiari dagokionez (G26), galdetutakoek “hurbileko” hauteskundeetan parte hartu behar dela diote. %95ek herri hauteskundeak garrantzitsuak direla dio (“garrantzitsuak” eta “arras garrantzitsuak” nahasirik), %81ek “arras garrantzitsuak”. Kantonamenduko bozak bigarren tokian kokatzen dira, %91k hauteskunde “garrantzitsuak” direla dio. Gutxiago dira hala ere “arras garrantzitsutzat” jotzen dituztenak (%66). “Tokiko” bi hauteskunde

horien inguruan adostasun zabal horretaz gain, europar hauteskondeek ere interesa pizten dute. %69k dio “garrantzitsuak” direla (%34k “arras garrantzitsuak”).

Eskualde hauteskondeei dagokienez, %64k “garrantzitsutzat” jotzen ditu (%30ek “arras garrantzitsutzat”).

Legebiltzarreko hauteskondeek, senatorialek eta lehendakaritzakoek interes gutxiago pizten dute (“%52”, “%37” eta “%20” hurrenez hurren).

Adostasun logika honetan, hautatu instituzioetan abertzaleen parte hartzea (G27) ezkertiar eta abertzale proiektua sendotzeko elementu gisa ikusten dute galdetutakoek. 8,5 batz besteko notarekin, parte hartze hori arrunt baikorki baloratzen dute erantzun dutenek. Hauteskundeetan parte hartzeari emandako garrantzia bezala, herri hauteskundeak dira lehen tokian kokatzen direnak, 9,01 batz besteko notarekin (%62k “10” nota eman du). Ondotik, Herri Elkargoetan parte hartzea heldu da (8,57 batz besteko notarekin; %51k “10” nota eman du). Kontseilu Nagusian parte hartzea ere garrantzitsutzat jotzen da, batz besteko nota apalagoa bada ere (7,9). Azken honetan, %42k bakarrik du “10” nota eman.

Hierarkizatze hori, erlatiboa bada ere, “ez erantzun”-etan ere ikusten da (%5, %8 eta %10 hurrenez hurren). Horrek adostasuna ez dela hain zabala erakusten du, zalantza handiagoa badela.

“Hauteskundeetan EH Bairen hautagaitzaren bilana” galderari dagokionez, %70ek baikorki baloratzen du (%23,8k “arras baikorki” eta %46,1ek “baikorki”). %17 zalantzan da eta %1,9k bakarrik “ezkorki” edo “arras ezkorki” baloratzen du. EH Bairen ekimenak adostasun zabala biltzen du eta beraz, nonbait, indar abertzaleak batzeko ideiak ere bai.

Abertzale ez diren alderdiekiko elkarlana eramateko perspektibari dagokionez (G25), “ez lehentasuna” erantzunak “lehentasuna” erantzunari gainera hartzen dio orokorki. EELVrentzat bakarrik da desberdina erantzuna (%42 “lehentasuna”, %37 “ez lehentasuna”, %22k ez du erantzun). Gainerateko alderdi guziekin elkarlana eramateko perspektiba ez da lehentasuntzat jotzen. EELVren ondotik, ondoko alderdiak atxematen dira: NPA, Front de gauche eta PS.

### **Lehen itzulietan mugimendu abertzaleak hartu beharreko jarrera**

Herri hauteskunde eta kantonamenduko bozetako lehen itzulian du abertzaleen presentziak garrantzi gehien erantzun dutenentzat. “Hurbileko” bi hauteskunde horietan gehiengo zabal batek “ezkertiar eta abertzale hautagaitza” behar dela dio (G29). Herri hauteskondeei dagokienez, %75 horrelako hautagaitza baten alde da, %15ek “beste indar politikoekiko aliantza” hobesten duelarik. %10ak ez du erantzuten.

Kantonamenduko bozei dagokienez, %75ek ezkertiar eta abertzale hautagaitza hobesten du, %13k aliantza egokiagoa egin behar dela dio eta %9k ez du erantzuten.

Laburbilduz, adostasun zabala bada herri hauteskunde eta kantonamenduko bozen inguruan, galdetutakoen hiru laurdenek ezkertiar eta abertzale hautagaitza hobesten baitute. Alderantziz, gainerateko hauteskundeentzat erantzunak aldakorak dira eta ez da estrategia baten aldeko hautu garbirik azalarazten.

“Hurbileko” hauteskundeetan ez bezala, gehiengo batek “beste indar politikoekiko aliantza” eskualde eta europar hauteskundeetan egokiagoa ikusten du. Europar hauteskondeei dagokienez, %44k hautu horren alde egiten du, %29k ezkertiar eta abertzale hautagaitza hobesten du eta %18k ez du erantzuten. Estrategia ez da hain argi eskualde hauteskundeentzat: %41 aliantza baten alde da, %34 ezkertiar eta abertzale hautagaitza baten alde, %16k ez du erantzuten.

Hexagono mailako hauteskondeek (legebiltzarrekoek, senatorialek eta lehendakaritzakoek) dute zalantzarik handiena sortzen (“ez erantzun”: %22 eta %25 artean) hiru hautuen artean legebiltzarreko hauteskundeetan eta senatorialetan, galdetutakoek ez dutelarik hautagaitzarik nahi (%55) lehendakaritzakoetan.



Kasu batzuetan erantzunek beste indar politikoez aliantzaren joera erakusten badute ere, estrategia hau koadro berezi batean hautatzen da. Laburbiltzeko, “bigarren itzulian” eta ongi definitu alderdi batzuekin aliantza egiteko estrategia dela erran daiteke (G30).

<i>Alderdia</i>	<i>1. itzulian aliantza</i>	<i>2. itzulian aliantza</i>	<i>Aliantzarik ez</i>	<i>Ez du erantzuten</i>	<i>Orotara</i>
UMP	1	2	79	18	100
Modem	3	14	62	23	100
PS	7	27	43	22	100
Front de gauche	15	30	27	28	100
NPA	20	32	17	31	100
EELV	29	38	14	20	100
Orokorrean	<b>12</b>	<b>23</b>	<b>41</b>	<b>24</b>	<b>100</b>

Aliantza *a priori* egiteko gogorik ez da, agian bigarren itzulian aliantza bat egiteko nahia bada eta zalantzan diren galdetutakoak anitz dira (laurden batek ez du erantzuten). Orokorki ateratzen dena da aliantzarako gogorik ez dela (%41), gehiengo zabal batek UMPekin (%79) eta Modemekin (%62) ez duela aliantzarik nahi, eta abantzu gehiengo batek (%43) ez duela PSarekin aliantzarik nahi. Beste hiru alderdiekiko aliantzari dagokionez (Front de gauche, NPA et EELV), gehiago dira lehen edo bigarren itzulian aliantza bat nahi dutenak aliantzarik ez dutenak nahi baino. Lau multzo bereiz daitezke beraz :

- UMP/ Modem : galdetutakoek argi dute ez dutela horiekin aliantzarik nahi;
- PS: anitzek ez du aliantzarik nahi baina hala ere bigarren itzulian aliantza bat egitea ez da baztertzeko;
- Front de gauche / NPA: anitzek ez du erantzuten (%28 eta %31) eta kopuru esanguratsu bat aliantzaren alde da (lehen edo bigarren itzulian)
- EELV: lehen edo bigarren itzulian aliantza bat egitearen alde, EELV da %67 lortzen duen alderdi bakarra (hots erantzun dutenen 2/3ak).